

ESPAINIAR ZEINU HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO OINARRIZKO HEZKUNTZA PROGRAMA

1. SARRERA

Espainiar Estatuan, luzaroan, Zeinu Hizkuntza Espainolaren (aurrerantzean ZHE) erabilera oso eremu zehatzera mugatuta egon zen: elkartegintza osatzen zuten pertsona Gorren arteko komunikaziora, alegia. Hala ere, hirurogeita hamarreko hamarkada amaieratik, honen ikaskuntza eta erabilera beste alor batzuetara barreiatuz joan da. Horregatik, ahaidetasuna, lanbidea edota interes hutsa dela eta, gutxiengo soziokultural eta linguistikoa den Gorren Komunitatearekin harremana daukaten pertsona entzuleek, ZHEko prestakuntza jasotzeko eskaria luzatu dute.

ZHEko Komunikazio ikastaroak pertsona Gorren edozein arlotan, hezkuntzan, gizarte-mailan, lan munduan,... izan zezaketen komunikatzeko beharrianari erantzuna emateko sortu ziren, baita gizarteak pertsona Gorren berezitasunak hurbilagotik ezagut zitzaten ere.

Aipatu ikastarook ZHEan komunikatzeko interesa daukaten pertsona orori zuzenduta daude eta hiru mailatan egituratuta daude (Hasierakoa(A1-A2), Erdikoa(B1) eta Goi-mailakoa(B2)). Horretarako, ikusizko eta zeinu bidezko hizkuntzaz ari garenez, ZHEko ikastaroek helburu, antolakuntza eta ezaugarri metodologiko bereziak dituzte.

2. HELBURU OROKORRAK

ZHEko irakaskuntzaren xede nagusia, ikasleek honako gaitasun hauek barneratu eta gara ditzaten laguntzea da:

- a) ZHEk duen komunikazio-balioa aintzat hartu eta hizkuntza hau erabiltzen ikasteko aukera balioetsi, baita hizkuntzarekiko, hitzunenganako eta hauen kulturarekiko adeitasunezko jarrera baikorra erakutsi ere.
- b) Egoera, gertakari, ideia eta sentimenduen gaineko mezuak ulertu, horretarako ZHEko Adituak irakatsitako eduki orokor eta zehatzak erabiliz.
- c) ZHEko Adituarekin eta ikaskideekin, klaseko ohiko jardueretan zein komunikazioa bultzatzeko propio sortutako egoeretan ZHE erabili.
- d) Elkarriketetan, ZHEan berezkoak diren ezaugarri gramatikalak ulertu eta jarioetasunez eta era egokian adierazi, hartzaileak informazioa jasotzen duela ziurtatuz.
- e) ZHEko berezko adierazpen baliabideak ondo erabili, mezua argi eta dagokion egoerari lotuta ulertzen dela ziurtatuz.
- f) Gorren Komunitatearen kontzeptua zein horren berezko ezaugarriak ezagutu, aztertu, ulertu eta balioetsi.
- g) ZHEan mezuak egokitasunez, era autonomoan eta sormena erabiliz ulertu eta ekoiztu, eta hizkuntzaren erabileran parte hartzen duten prozesuei buruz hausnartu, baita horrek pentsamenduaren antolaketan duen eraginari buruz ere.

- h) Oinarrizko errespetu eta diziiplina ohiturak bereganatu eta garatu ZHEko ikasketa prozesua era egokian gauzatzeko ezinbesteko baldintza lez. Baita tolerantzia jarrera erakutsi, pertsona Gorrekiko zein Gorren Komunitatearekiko aurreiritziak gaindituz.
- i) ZHE eta kultura, pertsona Gorren eskubide diren heinean, ezagutu eta balioetsi, hizkuntzarekiko errespetu eta interesa adieraziz eta, ondorioz, bere zaintza eta hobekuntza sustatuz.
- a) Komunikazio egoeretan Gorren Komunitateak berezkoak dituen ohiko esaerak ezagutu eta ondo erabili.

3. BIGARREN MAILAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAKO HELBURU OROKORRAK

- b) ZH darabilten pertsona gorrekin aurreikus daitezkeen egoera ohikoenetan komunikatzeko gai da, eskaerei erantzunez eta jarraibideak edo informazio zehatza emanez, hizkera erraza, malgua eta erregistro neutroa erabiliz.
- c) Jarduera sozialetan ZHko hizlari gorrekin elkarrekintzan aritzeko gaitasuna erakusten du, jarrera sozial egokitua eta hizkuntza-zuzentasuna adieraziz, gorren komunitatearen oinarrizko arau eta ohiturekin bat eginez.
- d) Eguneroko bizitzako arazoen konponketan ZHko hiztun gorrekin lankidetzan aritzen (ekintzak elkarrekin antolatu, erabakiak hartu...), ikuspuntuak, azalpenak, irtenbideak eta jokamoldeak modu errazean elkar-trukatzen daki, nahiz eta elkar ulertu izanaren baieztapena eskatu edo itzulgingururen bat erabili behar izan.
- e) Inguru hurbileko ZHko hiztunekin norbere intereseko edo gai ezagunen gaineko iritzi errazak, bizipenak, planak, nahiak, sentimenduak eta sentazioak elkar-trukatzeak gai da; adierazi nahi duen gehiena hizkera erraz baina zabalaz plazaratuz, nahiz eta gai abstraktu edo ezezagunez aritzean zalantzak eta zailtasunak erakutsi.
- f) Inguru hurbil eta pertsonaleko ZHko hiztun gorrekin eguneroko bizitzaren egoeretan elkarrekintzan aritzeko gaitasuna dauka: gertaera edo egoerei buruzko informazioa elkar-trukatuz, nahiak eta lehentasunak adieraziz edo jarraibideak emanez eta jasoz; horretarako hizkuntza-elementu errazak malgutasunez eta zuzentasunez erabiliz.
- g) Gorren komunitateari dagozkion ohiko gai ezagunak jorratzen diren eztabaidetan, solasaldietan eta talde-lanetan parte hartzen du, ZHn adierazten denaren ideia nagusiak antzemanaz zein informazio xume eta laburra hizkera errazean adieraziz edo, gai korapilatsu eta ezezagunez aritzen denean, errepikatzeko zein ulertutakoa baieztatzeak eskatuz.
- h) Gorren komunitatearekin lotutako erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuen gainean ZHko hiztunekin solasean aritzen daki, informazio erraza, jokabideak eta azalpenak elkar-trukatuz; betiere solaskideak modu argian eta hizkera arrunta erabiliz signatzen badu eta errepikatzeko edo ulertutakoa baieztatzeak aukera ematen badio.
- i) Gorren komunitateari dagokion informazioa zabaltzeko, betiere ohiko gai ezagunak edo norbere interesekoak badira, zuzentasun onargarri arituz nahiz eta zailtasunak erakutsi eta solasaldi luzeetan gelditu nabariak egin behar izan.

j) ZHko antzezlan, zine laburmetrai, istorio edo umore-kontakizunen ideia nagusiak ulertzen ditu, baldin eta solaskideak astiro eta hizkera maila arrunta erabiliz signatu eta argumentua gidatzen duten ikusizko osagaiak eranstean baditu.

k) ZHko testu artistiko edo literatura-itzulpenen ideia nagusiak ulertzen ditu, betiere informazio zehatza ematen duten kontakizun edo istorio laburrak badira eta gorren komunitatearen berezko ezagutza abstraktuak aktibatzea beharrezkoa ez bada.

4. BIGARREN MAILAKO HELBURU ZEHATZAK

> ZHKO MEZUEN ULERMENA

a) Lan, hezkuntza edo aisialdi egoeretan ezagunak zaizkion ZHko hizkera arrunteko ekoizpen argietan alderdi nagusiak antzeman.

b) Ohiko egoera ezagunekin lotutako hizketaldi erraz eta argi baten atzean dauden komunikazio-asmoak eta ideia nagusiak igarri.

c) Eguneroko gaiekin lotuta dauden eta hizkera geldo eta argian adierazita dauden ohar-informatibo edo bestelako ZHko bideoetatik funtsezko informazioa (datu zehatzak) atera.

d) Argi eta hizkera arruntean adierazitako ZHko jokabide, aholku, gomendioen... bidez zehaztutako jarraibide edo betekizun errazak jarraitu.

e) ZHko elkarrizketa edo eztabaida bateko ideia nagusiak ulertu, betiere modu argian eta hizkera arrunta erabiliz **adierazten** bada. Gai ezberdinei buruzko ZHEren hiztegi-zerrenda handitu eta finkatu.

>ZEINU HIZKUNTZAKO ADIERAZPENA

f) ZHko bakarriketa jarraietan edo hizketaldi labur eta errezetan jartotasun onargarri eta koherentzia, modu antolatuan zein oinarriko koherentzia adieraziz signatu: gai ezagunen gaineko bizipen eta sentimenduak adieraziz, norbere erreakzioak, ametsak eta nahiak azalduz.

g) Adierazpen labur eta errazak egitean, familia, zaletasun edo interesak, lana, bidaiak edota egungo gertakarien gaineko alderdi garrantzitsuak zehaztasun eta zuzentasunez aditzera eman, esapide eta egitura andana erabiliz.

h) Ohiko egoera eta gaiez aritzean, esan nahi duena adierazten lagunduko dioten hizkuntza-elementu errazez baliatuz, mezuak ZHn malgutasunez igorri, nahiz eta zenbait zalantza agerian utzi eta hainbat itzulinguru erabili behar izan.

i) Ezaguna zaion gai baten gainean aurretiaz prestatutako adierazpen laburrak egin, modu ulergarrian signatuz, nahiz eta ZHren berezko hitzunen azentu eta intonaziotik urrun geratu.

j) Interes orokorreko gai ezagun baten inguruan aurretiaz prestatutako aurkezpen labur baina argia egin, orokorrean zailtasun barik ulertzeko modukoa eta ideia nagusiak zehaztasun onargarri azalduz; hartzaileek egin ditzaketen galdera osagarriei erantzuteko gaitasun adieraziz, nahiz eta galdera errepikatze eskatu behar izan (arinegi hitz eginez galdetzen badiote).



k) Etabaida luzeetan parte hartu, baldin eta hizketaldia argitasunez, hizkera arruntean eta ideia nagusiak, gaia eta komunikazio-asmoak argi uzten badira, nahiz eta gainontzeko solaskideek, batzuetan. esan nahi duena ulertzeko zailtasunak izango dituzten.

>ZH DARABILTEN HIZTUNEKIKO ELKARREKINTZA

l) Aurretiazko prestaketarik gabe, eguneroko gaiei dagozkien elkarriketetan parte hartu, iritzi pertsonalak eta sentimenduak adieraziz eta informazioa elkar-trukatuz, horretarako adierazle ohikoenak erregistro neutroan erabiliz, baita pertsona gorrek ohiko egoeretarako adostutako arauak ere jarraituz.

m) Elkarriketa edo argibide-eskaera batean beharrezkoa den informazio zehatza eman, nahiz eta aurretiaz prestatu barik badauka doi-doia ez izan. Aurretiaz prestatzekotan edo gidoreen bat jarraitzekotan, aldiz, elkarrekintzan aurrea hartu eta informazioa baieztatzen joateko gaitasuna erakuts dezake. Dena den, uneren batean solaskideak arinegi hitz egin edo luzeegi aritzen bada baliteke informazioa errepikatzeko eskatu behar izatea.

>ZUZENTASUN ETA DOITASUNA SISTEMAREN OSAGAIEN ERABILERAN

n) Eguneroko bizitzako egoera eta gai ezagunetan erabili behar ohi diren unitate lexikoz osatutako hizkuntza-osagai errazez zuzentasun onargarri, doitasunez eta malgutasunez baliatu, baita sekuentzia lineal batean lotuta ageri diren osagai morfosintaktiko errazez ere.

o) ZHko berezko hiztunen azentutik urrun geratzen den baina doitasun onargarria duen zeinu-ekoizpena erakutsi, solaskideei igorri nahi dien mezua ulargarri eginez, nahiz eta batzuetan artikulazio akatsak egin.

> EGOKITZAPEN SOZIOLINGUISTIKOA

p) Parte hartzen duen gizarte-egoera ohikoetan, gorren komunitatearen kideen komunikazioa zuzentzen duten arau eta ohiturei dagozkien adei-legeak erabili, egokitasun eta malgutasunez jokatu zein hizkera erraza eta erregistro neutroa erabiliz.

>EGOKITZAPEN PRAGMALINGUISTIKOA

q) Zeinu bidezko testu laburrak eraiki eta berreraikitze lotura eta erreferentziatzeko oinarritzko osagai errazak (erakusleak, izenordainak...) erabili, lerro-sekuentzia bateko osagai linguistiko sinpleak lotu eta kohesionatzeko baliabide errazez baliatuz.

r) Jariotasun onargarri signatu, mezua antolatu edo berregituratzeko beharrak eta adierazpen-oztopoek geldione eta sasi-hasiera nabariak eragin arren, batez ere hizketaldi luzeetan gai korapilatsu eta ezezagunez mintzatu behar denean.

s) Mezua egokitasun nahikoz igortzera begira, ZHren osagai-sistemeekin batera aurpegi-adierazpena eta bekain-mugimendua bezalako baliabideak erabili.



t) Informazio erraza eta praktikoa helarazteko azalpenezko zeinu-ekoizpenetan, generoari lotutako arauekin bat eginez, buru-prozesua egin bitartean (idea nagusiak eraiki edo antzematean) aipamenak, definizioak edo adibideak emateko estrategia diskurtsibo errazak erabili.

u) Gertaera eta bizipen arruntak nolabaiteko zehaztasunez kontatu, horretarako denboraleroaren arabera ordena jarraituz, narrazio-testuetan (ipuinak, istorioak, bakarriketak...) genero-arauei jarraituz eta bekain-mugimendua edo begiradari eustea bezalako baliabideen bidez informazio garrantzitsua nabarmenduz, aldi berean deskribapen eta solasaldi laburrak tartekatuz.

v) Pertsona, leku eta objektuen gaineko deskribapen-testu errazetan deskribapenak egin eta zehaztasunak antzeman, alderdi garrantzitsuenak nabarmentzeko elementuen ordena edo bekain-mugimendua bezalako baliabideak erabiliz.

5. JARRAIBIDE DIDAKTIKOAK (METODOLOGIA)

ZHEren ikasketa prozesuaren ardatza **komunikazio-metodoa** da. Ildo horretan, ikasleek testuinguru bakoitzari dagozkion eduki aipagarriak igorritik eta jasoz komunikatzen ikas dezakete. Horretaz gain, egunerokotasuneko egoera zehatzetan beharrezkoa den komunikazio gaitasuna barneratu dezakete.

Komunikazio metodoaren arabera, ZHEko Adituaren rola ez da klaseko ardatza edo pertsonaia garrantzitsua izatearena, ikasleen gidaritzat aritzea baino. Hortaz, ikasleek klasean zehar rol parte hartzaileagoa hartzen dute. Era berean, ikastaroetan gramatika erraz ulertzeko moduan azaltzen da, ikaslearengan jakin-mina pizteko asmoz.

Hau guztia lortzera bidean, klasean jarduera anitz proposatzen dira: antzerkitxoak, elkarrizketak, rol-jokoak, binakako lanak, lanak talde txikitan, etab., bitzita errealetik hartutako testuinguruak proposatuz eta ohiko eduki funtzionalak adieraz ditzaten eskatuz, hala nola: informazioa eman ala eskatu, tentua eta sentimenduak azalerratu, ideiak bota, konbentzitu,...

6. BIGARREN MAILAKO EBALUAKETA IRIZPIDEAK

a) Eguneroko egoeretan zuzentasun onargarriaz komunikatu, nahiz eta batzuetan ahozko hizkuntzaren berezko azentu eta egitura agerian geratu eta aldiro ekoizpen-akatsak egin.

b) Kontrol gramatikal ona eduki, nahiz eta ama-hizkuntzaren eragin nabaria izan.

c) Egindako akatsek ez daukate eraginik mezuaren edukian.

d) Horren ohikoak ez diren edo zailak diren egoerei aurre egin ekoizpena moldatuz.

e) Adierazi nahi denaren gehiengoak helarazteko hizkuntza-osagai erraz anitzak malgutasunez erabili.

f) Eguneroko bizitzarako garrantzitsuak diren gai gehieneri buruz (familia, zaletasun eta interesak, lana, bidaia, egungo gertaerak) mintzatzeko, ingurumariaren bat erabiltzeko adina hiztegia izan.

- g) Oinarrizko hiztegia aise menperatu, baina pentsamendu konplexuagoak adierazteko edo ohikoak ez diren gai eta egoerak hizpide hartzean oraindik ere akats nabariak egin.
- h) Eguneroko gaietako buruzko eztabaidetan parte hartu, hitza hartzeko esaldi egokiren bat erabiliz.
- i) Adei-lege garrantzitsuenak ezagutu eta egokitasunez jokatu.
- j) Komunitatearen eta bere kultur-ingurune propioaren arteko ohitura, erabilera, jarrera, balore eta sinismen-ezberdintasun nabarmenez jabetu eta horiek identifikatu.
- k) Lan, ikasketa edo aisialdi arloko gai ezagunen inguruan ari diren eta hizkuntza arruntan ekoiztutako testu argien ideia nagusiak ulertu.
- l) Hurbilak edo interes pertsonalekoak diren gaien gaineko testu erraz eta koherenteak ekoiztu.
- m) Bizipenak, gertaerak, desioak eta xedeak deskribatzeko zein bere iritzia edo planak labur arazoitzeko gaitasuna izan.
- n) Menperatutako gai baten inguruan aurretiaz entseatutako aurkezpen laburra egiteko gaitasuna izan.
- o) Ohiko inguru hurbilari lotutako arloen gaineko ikuspuntua argitasunez adierazi: lana, familia, lagunak, aisialdia...
- p) Hizketaldia egituratzeko hainbat arazo erakutsi arren, eraginkortasunez eta laguntzarik gabe aurrera jarraitzeko gaitasuna izan.
- q) EAEko pertsona gor helduen kolektiboaren elkarte-sarea osatzen duten erakunde nagusiak ezagutu.
- r) EAEko ume gorren familien elkarte-sarea osatzen duten erakundeak ezagutu.
- s) Pertsona gorren erakundeek aurrera daramatzaten zerbitzuak, proiektuak eta jarduerak ezagutu.
- t) Informazioa Zeinu Hizkuntzan eskaintzen duten ikus-entzunezko komunikabideetako bat ezagutu.

7. IKASLEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK:

>IKASLEEN ESKUBIDEAK:

a) Irakaskuntza eta parte-hartzeari buruz:

a.1. Hezkuntza-programan ezarritako eta irakasle-taldeak adostutako egitarauaren arabera hezkuntza jaso.

a.2. Federazioek edota Elkarateek antolatutako hezkuntza-jarduera eta ekimen osagarrietan parte hartu.

a.3. Federazioa edota Elkarateetako azpiegitura eta zerbitzuak erabili, beti ere horietako bakoitzak dituen helburuen arabera.

b) Ebaluaketari dagokionez:

b.1. Ikasturtean zehar maila bakoitzerako egiten diren ebaluaketa-proba guztietan parte hartu.

b.2. Ikasleek, beraien garapena objektibotasun osoz ebaluatua izateko eskubidea daukate.

b.3. ZHEren Adituek, barneratutako edukiak ebaluatzeko kontutan hartuko diren irizpide orokorrak alde aurretik helarazi beharko dituzte.

b.4. ZHEren Adituek ikasleekin komunikazio oparoa izango dute, ikasleek ikaskuntza-prozesuari ateratako atarramenduari eta egindako garapenari dagokionez.

b.5. Ikasleek, ikasturte amaieran hartutako erabakien eta jarritako kalifikazioaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute. Erreklamazio hori bi arrazoitan oinarritu ahal izango da: batetik, ikasleari jarritako proba, maila ezberdinetan ezarritako helburu edo edukiei egokituta ez egotean ala, bestetik, ezarritako irizpideak txarto erabiltzean. Horretarako, idatzizko erreklamazioa egin beharko dute, federazioak daukan eredia erabiliz.

c) Aukera berdintasunari dagokionez:

c.1. Ikasle guztiek irakaskuntza maila ezberdinetan parte hartzeko aukera berdinak izateko eskubidea dute.

c.2. Aukera berdintasuna honako irizpideei jarraituz sustatuko da:

>Jaiotze, arraza, sexu, erlijio ala iritzi arrazoiak direla medio edota banakako zein gizarteko bestelako baldintza edo egoerarengatiko bazterkeria eza.

>Benetako aukera berdintasun eraginkorra ziurtatuko duten baliabide gehigarrien ezarpena.

c.3. Federazioak, ikasleen bazterkeria saihestuko duten ekimenak gauzatuko ditu. Ildo horretan, arreta berezia jarriko du bizikidetzarako arauak errespetatu eta ikasleen integrazio osoa ziurtatzeko ekintza positiboetarako egitasmoak ezar daitezen.

>IKASLEEN BETEBEHARRAK:

a) Bertaratzea eta ziurtagiriei dagokienez:

a.1. Izena eman duten ikastaroari dagozkion eskoletan zein proposatutako gainontzeko hezkuntza-jardueretan parte hartu (Gaitasun ziurtagiria jasotzeko, gutxienez, ikasturteko orduen %80an parte hartu eta azken proba gainditu beharko dute. Osterantzean, Bertaratze ziurtagiria jasoko dute). Ezinbestekoa da eskoletara maiz kale ez egitea, gainontzeko ikaskideen zein ikaslearen ikasketa-prozesua ez oztopatzeko. Era berean, egindako hutsegiteak egiaztatari bidez arrazoitu beharko dira.

a.2. Ikasleak eskoletara orduan heltzea gomendatzen dugu; hortaz, ikaslea eskolara 15 minutu baino gehiagoko atzerapenaz heltzekotan, ezin izango da ikasgelan sartu eta atsedenaldia amaitu arte itxaron beharko du ikasgelan sartu ahal izateko.

a.3. Ikasleak ikastaroan baja eman nahi izatekotan, ikastaroaren ZHEko Koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko lioke.

a.4. Ikaskideen arreta ez oztopatze aldera, ikasleak ezin izango dira ikasgelatik irten harik eta eskola amaitzen ez den arte. Arrazoitutako egoeretan salbuespenak egin ahal izango dira, baldin eta ZHEren Adituak bere onespena ematen badu.

a.5. Jarduerak gauzatzeko onartutako ordutegiak bete eta errespetatu.

a.6. Ikastaroa antolatzen duen Erakundeak ezarritako ordainketak egin ez duten ikasleei zuzenean baja emango zaie.

b) Ikasgelan erakutsi beharreko jarrerrei dagokienez:

b.1. Debekatuta dago eskoletan zehar ahotsa erabiltzea.

b.2. Idazteari dagokionez, eduki teorikoak asko direnean baino ez da baimenik emango. Idazteko askatasuna emateak ZHEren ikasketa-prozesuari kalte egingo lioke eta hizkuntza honek ezinbestean eskatzen duen begi-arreta galduko litzateke.

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK



II. Mailako Programazioa

8.ARLOZ ARLOKO GAIEN ZERRENDIA

HEZKUNTZA-EDUKIAK - ERDIKO MAILA (B1)				
UNITATEA	EDUKI PRAGMATIKOAK	EDUKI GRAMATIKALAK	EDUKI LEXIKOAK	EDUKI SOZIOKULTURALAK
1. Unitatea Topera ekin diogu!	>Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Solaskidearengan eragin. >Jendearenganako harremana	>Izena: -<i>Motak eta zenbakiaren adierazpena.</i> >Izenordaina: -<i>Galderazkoak.</i>	>Kontzeptu orokorrak: -<i>Existenzialak.</i> -<i>Denborazkoak.</i> -<i>Mentalak.</i> >Gaiak: -<i>Lana.</i> -<i>Informazioa eta komunikabideak.</i>	>Bizi-baldintzak eta gizarte antolaketa: -<i>Nork bere burua identifikatu.</i>
2. Unitatea ZHE praktikatu dezagun	>Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Jendearenganako harremana. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa	>Kuantifikatzaileak: -<i>Kuantifikatzaile fokalak.</i> >Izenordaina: -<i>Pertsona izenordainak: plurala.</i> >Aditza: sailkapen sintaktikoa -<i>Aditz nuklearrak.</i>	>Kontzeptu orokorrak: -<i>Existenzialak.</i> -<i>Ebaluaziozkoak.</i> -<i>Mentalak.</i> >Gaiak: -<i>Norbanakoa.</i> -<i>Nor bere identitatea.</i> -<i>Pertsonen arteko harremanak.</i> -<i>Hezkuntza.</i>	>Zeinu hizkuntza espainolaren erabileraren eremu geografikoa.
3. Unitatea Gure gelako bloga	>Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Solaskidearengan eragin. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa.	>Kuantifikatzaileak: -<i>Kuantifikatzaile propioak.</i> >Esaldi bakuna: -<i>Ordena.</i> -<i>Esaldi bakun motak.</i>	>Kontzeptu orokorrak: -<i>Existenzialak.</i> -<i>Ebaluaziozkoak.</i> -<i>Mentalak.</i> >Gaiak: -<i>Informazioa eta komunikabideak.</i> -<i>Zientzia eta teknologia.</i>	>Komunikabideak.



Programación Nivel II

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK



II. Mailako Programazioa

4. Unitatea Jaten dugunak egiten gaitu	>Informazioa eman eta eskatu. >Solaskidearengan eragin.	>Izenondoa: -Izenondoaren kokapena. >Kuantifikatzaileak: -Kuantifikatzaile propioak: kuantifikatzaile proportzionalak. -Adjektibo-sintagma: adjektibo-sintagmaren osagaien ordena.	>Kontzeptu orokorrak: Existenzialak. Kuantitatiboak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak. >Gaiak: Norbanakoa: fisikoa. Elikadura. Zerbitzuak. Erosketak, dendak eta saltokiak. Osasuna eta higieena.	>Jatekoak eta edariak. -Portaerak mahaian.
5. Unitatea Zinea maite dugu	>Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Solaskidearengan eragin. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa.	>Izena: -Izen motak: toponimoak. >Izenondoa: -Izenondoaren graduak. -Edutezkoak: kokapen sintaktikoa. -Aditzondoa: denborazko eta kopuruzko hautazko zirkunstantzialak.	>Kontzeptu orokorrak: Kuantitatiboak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak. >Gaiak: Pertsonen arteko harremanak. Zientzia eta teknologia. Gobernua, politika eta gizartea. Jarduera artistikoak.	>Kultur produktu eta sorkuntzak.
6. Unitatea Kulturak inguratzen gaitu	>Informazioa eman eta eskatu. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa.	>Erakusleak: -Erakusleen kokapena: markatutako eta ez markatutako ordena. Plurala erakusleetan. >Aditz-sintagma: -Osagarriak.	>Kontzeptu orokorrak: Kuantitatiboak. Espazialak. Kualitatiboak. >Gaiak: Elikadura. Erosketak, dendak eta saltokiak. Jarduera	>Hezkuntza eta kultura. Liburutegiak eta Museoak. -Zeinu-gidak dituzten museoak.



Programación Nivel II

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK



II. Mailako Programazioa

			<i>artistikoak. Geografia eta natura.</i>	
7. Unitatea Goazen oporretan behingoz!	>Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Pertsonen harremanak.	>Kuantifikatzaileak: -Kuantifikatzaile propioak. >Aditz-sintagma: -Aditz-sintagmaren nukleoa.	>Kontzeptu orokorrak: Kuantitatiboak. Espazialak. Denborazkoak. >Gaiak: Aisialdia. Bidaia, ostua eta garraioa. Geografia eta natura.	>Aisialdi-ekintzak, ohiturak eta zaletasunak.
8. Unitatea Gorren kultura murgilduz	>Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Solaskidearengan eragin. >Pertsonen harremanak izan.	>Izenondoa: -Izenondoaren graduak. >Kuantifikatzaileak: -Kuantifikatzaileen kokapena. >Izenordaina: -Erlatiboak. Galdetzaileak. >Izen-sintagma. >Koordinazioaz osatutako esaldi konposatuak: -Baiezko kopulatiboak.	>Kontzeptu orokorrak: Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak. >Gaiak: Aisialdia. Etxebizitza.	>Pertsonen arteko harremanak. -Afektuzko erlazioak, senide artekoak eta lagunartekoak. >Lehen nahiz orainaldiko gertaerak eta protagonistak.
9. Unitatea Parrandan goaz	>Informazioa eman eta eskatu. >Solaskidearengan eragin. >Pertsonen harremanak.	>Izenondoa: -Izenondo motak. >Aditzondoa: -Fokalizatzaileak eta erlatiboak. >Perpaus konposatu koordinatuak: -Ezezko kopulatiboak.	>Kontzeptu orokorrak: Kuantitatiboak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak. >Gaiak: Pertsonarteko harremanak. Aisialdia. Erosketak, dendak eta	>Bizi-baldintzak eta gizarte antolaketa. -Egutegia: jaiegunak.



Programación Nivel II

CURSOS DE LENGUA DE SIGNOS

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK



Euskal Gorrak

II. Mailako Programazioa

			<i>saltokiak. Ekonomia eta industria.</i>	
10. Unitatea Guztiontzako irtenbideak nahi ditugu!	>Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Soklaskidearengan eragin. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa.	>Kuantifikatzaileak: -<i>Kuantifikatzaile propioak: unibertsalak, ez unibertsalak, ezezkoak eta gradatiboak. Egitura kuantifikatuak.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Kuantitatiboak. Ebaluaziozkoak.</i> >Gaiak: <i>Informazioa eta komunikabideak. Etxebizitza. Zerbitzuak. Gobernua, politika eta gizartea.</i>	>Gizarte zerbitzuak eta laguntza egitasmoak. -<i>Interpretazio zerbitzu arruntak.</i>
11. Unitatea lpuinez gozatzen dugu	>Informazioa eman eta eskatu. >Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa.	>Izenordaina: -<i>Pertsona izenordainak: pronominalizazioaren erabilera espazioan.</i> >Menpeko esaldi konposatuak: -<i>Menpeko barneko esaldiak. Barne menderakuntza ez argumentala eta argumentala.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>-Denborazkoak.</i> >Gaiak: <i>-Norbanakoa.</i>	>Hezkuntza eta kultura. Liburutegiak eta museoak. -<i>Irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoak.</i>
12. Unitatea Zeinen ondo pasatu dugun!	>Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. >Pertsonenganako harremanak. >Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa.	>Aditzondoa: -<i>Moduzkoak.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>-Ebaluaziozkoak.</i> >Gaiak: <i>-Gizarte zerbitzuak.</i>	>Pertsonarteko harremanak. -<i>Hautabidezko komunikazio estrategia ezberdinak.</i>



Euskal Gorrak

Programación Nivel II

CURSOS DE LENGUA DE SIGNOS